



## EZOZI ZANGITU

### Soraluzeko Ametsa gogoan

*Pil-pileanen  
XX. Urteurreneko  
bertso jaialdia*

*Herriko Antzokian  
Ekainaren 3an, 22:15ean*

*Amets Arzallus  
Oihana Iguaran  
Beñat Gaztelumendi  
Jon Maia*

*G. J.: Josu Goikoetxea*





ERRENTA2015

# ZERTAN INBERTITZEN DU ALDUNDIAK ZURE DIRUA?

Ekonomiaz, garapenez, aberastasuna sortzeaz eta giza ongizateaz haratago, Gipuzkoa hazten jarraitzeko zergak biltzeaz haratago, orain, jartzen duzun euro bakoltza zugar inbertitzen dela ulertzeko momentua da. **Orain Gipuzkoa.**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO  
URTEKO AURREKONTUA

# 812M€



17M€

DIPUTATU  
NAGUSIAREN  
ALORRA



39M€

GOBERNANTZA ETA  
GIZARTEAREKIKO  
KOMUNIKAZIOA



59M€

MUGIKORTASUNA  
ETA LURRALDE  
ANTOLAKETA



78M€

BIDE  
AZPIEGITURAK



22M€

INGURUMENA  
ETA OBRA  
HIDRAULIKOAK



55M€

KULTURA, TURISMO,  
GAZTERIA ETA KIROLAK



70M€

EKONOMIA SUSTAPENA,  
LANDA INGURUNEA  
ETA LURRALDE OREKA



120M€

OGASUNA ETA  
FINANTZAK



345M€

GIZARTE POLITIKA



7M€

BATZAR NAGUSIAK

# Frantziako prekarioak lan erreformaren aurka

Martxoaren 9an, François Hollandek, Frantziako presidentea, aspaldian Bruselako erakundeek eskatutako lan-erreforma gogorra aurkeztu zuen. Lehenengo momentutik, proiektuak ezkerreko sektoreen, sindikatu nagusien eta ikasle-elkarteen haserrea eragin zuen. Egun hartan egin zuten proiektuaren aurkako lehen mobilizazioa. 225.000 eta 500.000 lagun artean manifestatu ziren proiektuaren aurka, gehiengoa ikasleak.


Ironikoki, lan-erreforma "espainiarra" deitu izan zaio proiektuari, Rajoyren lan-erreforman oinarritua baitago. Lege berriak lanerako eskubideen zutabe nagusiak jotzen ditu. Hasteko, langile mugimenduaren garaipen historikoa izan zen 35 orduko lanaldia ekiditeko aukera ematen du. Bestetik, kaleratzeen kalteordainei gehienezko muga jartzea erraztuko du. Kaleratzeak objektibotzat onartuak izateko bete beharreko baldintzak ere aldatu egingo dira: enpresek langileak kaleratu ahal izango dituzte, adibidez, produktuaren eskaria jaisten bada. Horretaz gain, aparteko orduak merkeago ordaindu ahal izango dituzte.

Erreformari aurre egiteko, hainbat sektore antolatuz joan dira. Frantziako langileen mugimendua ondo errotua dago, sindikatuen eragina nahiko handia baita. Aldiz, oraingo mobilizazioaren berritasunetako bat da langile prekario gazteak mobilizatu izana. "On vaut



Ainara Osoro

**"Parisen Place de la Republique okupatu zuten manifestatzaileek, baita beste hiri batzuetan ere, "Nuit Debout" (Gaua Zutik) aldarrikapen-deiari erantzunez"**



P.G.

*mieux que ça*" (Hori baino gehiago balio dugu) bezalako kolektibo eta kanpainak lan-baldintzak okertzeari buruz eta etorkizunari buruz gazteek dauzkaten kezka eta aldarrikapenak plazaratu dituzte, horiek eztabaida publikoan txertatuz.

Hala ere, martxoaren 24an gobernuak proiektua onartu zuen. Ondorioz, martxoaren 31an greba orokorra izan zen Frantzian, mobilizazio handiak egin ziren eta orduan ere ikasle eta gazteen presentzia nabaria izan zen. Protesta-egunaren amaieran, Parisen *Place de la Republique* okupatu zuten manifestatzaileek, baita beste hiri batzuetan ere, "Nuit Debout" (Gaua Zutik) aldarrikapen-deiari erantzunez. Orduetik, asanbladak eta eztabaida publikoak hartu dituzte Frantziako hainbat plaza, Espainiako "indignatuen" mugimenduaren antzera.

Izan ere, azken urteetako lan eta ekonomia-erreforma atzerakoiei aurre egin nahi bazaie, munduko prekarioak batzeko ordua heldu da. Antzina, "klase" kategoriak mobilizazio eta antolakuntza indar handia zuen, baina eragin hori galtzen joan omen da. Hala ere, desberdintasun sozialak areagotu egin dira eta eskubide sozialak okertu. Horregatik, Frantziako kasuak argi uzten du kapitalaren eta lanaren arteko borrokak bizirik dirauela, eta, egoera aldatu nahi badugu, antolatu eta hausnartzeko moduak berriztu beharko ditugula.

Euskalzaletasunaren alde:



SORALUCE

Pil-pilean Kultura Elkarateak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkaratea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa Telefonoa: 943 75 13 04 e-maila: aldizkaria@pilpilean.com  
Erredakzioa: Egoitz Unamuno eta Gaizka Azkarate Zuzentzailea: Leire Ginea Publizitatea: Gaizka Azkarate Diseinua: Iñigo Uribetxebarria Maketazioa: Oier Larreategi Inprimategia: Gertu Koop. Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale I.Z.K.a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



## Gutunak

### Soraluzeko Sare Azken ostiraletako elkarretaratzeak

Hileko azken ostiraletan preso eta iheslarien giza-eskubideen alde egin ohi den elkarretaratzeari ikusgarritasun handiagoa emateko helburuarekin, ondorengo berrikuntzak egitea adostu dugu:

- Hemendik aurrera elkarretaratzeak Plaza Berrian egingo ditugu.
- Euskal Herri osoan Sare Herritarrak martxan jarri duen giza-eskubideen aldeko "Hartu tren" dinamikarekin bat egingo dugu, elkarretaratzean lelo hori erabiliz eta herrian zehar elkarretaratze ibiltariak eginez.
- Parte hartzaile bakoitzak elkarretaratzerantz beste pertsona bat ekartzeko deialdia egiten dugu, elkarretaratzean parte hartzen duen herritar kopurua gero eta handiagoa eta anitzagoa izan dadin.

Ideologia guztietako soraluzetarrei dei egiten diegu preso eta exilioan dauden pertsonen eta euren senideen giza-eskubideak errespetatzearen alde mobilizatzeko jarraitu dezaten.

Giza eskubideak | Konponbidea | Bakea

## Logo lehiaketa

Mesedetako Egoitzak irudia berritzeko logo lehiaketa antolatu du. Parte-hartzaile bakoitzak bi logo aurkeztu ahalko ditu. Aurkeztutako lan guztiak goitizenarekin aurkeztu beharko dira, parte-hartzaileen anonimatua bermatzeko.

- Lanak aurkeztu behar dira formatu digitalean, egoitzan bertan edo [resmerced@gmail.com](mailto:resmerced@gmail.com) helbidera bidalita.
- Epea: maitzaren 2tik 31ra
- Saria: 250 euro

## Zuzenketa

Martxoko alean Jose Luis Fernandezek Gaztela eta Leongo eskubaloi liga irabazi zuela adierazi genuen boleibol liga irabazi zuela esan beharrean.

## Bittartetik



Oinatz Silbeti

## 3.mailako frogei planto

Pozik joaten da Lur eskolara. Aurten, Lehen Hezkuntzako 3. maila egiten ari da eta garrantzitsua da eskolara gustora joatea; izan ere, urte asko pasako ditugu hezkuntza-sisteman.

Beti sinetsi izan dut hezkuntza-sistemak aukera berdintasuna bermatu eta biharko jendarte euskalduna hez-teko tresna behar lukeela, ikasleen garapena prozesu gisa baloratuz.

Egungo errealitatea oso desberdina da. LOMCE legea, eta EAEn HEZIBERRI - "biki euskalduna"- ezarri denetik, gauzek okerrera egin dute denbora gutxian: pikutara aukera berdintasuna; euskara, baztertua, eta hori gutxi balitz, 3. mailako ikasleek egun bakarreko probari egin beharko diote aurre.

Lur pozik joaten da eskolara baina izututa dago egun bakarreko azterketarekin. Izuak eta hezkuntzak ezin dute erlaziorik izan. Horregatik, Lurrek ez du egingo azterketa hori. Horregatik eta, hezkuntzako lege atzerakoi horien kontrakoa naizelako eta ez egiteak ez duelako eraginik izango bere espediente akademikoan.

Erabakia "Gure" bihurtuko bagenu, 3.mailako ikasleen gurasook azterketa hori ez egitea erabakiko bagenu, gainontzeko guraso guztien babesarekin, LOMCE eta HEZIBERRI legeei ostikada ederra emango genieke.

Garrantzitsua da gurasoak mobilizatzea. Zenbat eta gehiago, orduan eta indar handiagoa. Borroka honetan ez gaude soraluzetarrek bakarrik, jende eta eskola asko daude. Nik planto egitera animatzen zaituztet.

## Armendi Jatetxea

Sukalde tradizionala, eguneko menua eta asteburuetan menu berezia  
Burduntzian erretako bildotsa  
Etxeko fritoak  
Souflea  
Tel.: 943 75 10 02



# ALKARRI

elkartea

[www.alkarri.org](http://www.alkarri.org)

✉ [alkarri@alkarri.org](mailto:alkarri@alkarri.org) ☎ 622 725 557

- Boluntarioen prestakuntza eta antolamendua
- Esku-hartze gerontologiko eta sozialen programen garatzea
- Esku-hartze psikosoziala egoitza eta eguneko zentroetan
- Gizarte eta kultura animazio zerbitzu pertsonalizatuak

# “Lau-bost urterekin dagoeneko gai dira bertsoak sortzeko”

**Iñaki Gurrutxaga Zubimendi**  
(Orio, 1981)

Bertso irakaslea ikastetxean



Iñaki Gurrutxaga Zubimendi.

Iñaki Gurrutxaga Gipuzkoako ikastetxeetan bertsolaritza irakasten diharduten 15 irakasleetako bat da. Hamairu urte inguru daramatza lan horretan eta bi urte herriko ikastetxean. 9-11urte bitarteko gaztetxoengana etortzen da aste-oro. Maiatzaren 12an antzokian eskainiko duten bertso-saioa prestatzen dihardute asteotan.

**Eskolan bertsoa erakusteak zein helburu du?**

Gazteei bertsolaritza transmititzea. Bertsolaritzakeosistema bat behar du garatu dadin eta guk elikatu egiten dugu. Garai batean eremu pribatuan egiten zena, gaur egun, eskolaren bitartez bideratzen dugu. Askok ikastetxean izaten dute lehenengo kontaktua bertsolaritzarekin.

**Zein ekarpen egiten die gaztetxoei?**

Hizkuntzarekin jolas egiteko aukera ematen die. Maila apala duten ikasleekin ikusten da hori argien, sortzeko gai izatea oso garrantzitsua da eurentzat. Jendaurrean jarduteko gaitasuna ere lantzen dute, adibidez, jaialdirako prestatzen direnean.

**“Askok ikastetxean izaten dute lehenengo kontaktua bertsolaritzarekin”**

**Zela lantzen duzue bertsoa?**

Nik batez ere sorturazi egiten diet. Lau-bost urterekin dagoeneko gai izaten dira bertsoa sortzeko, eta sortzen duten le-

henengo bertsoak izugarriko ilusioa egiten die. Aurten, lehenengo aldiz, ez diet eman silaba kopuruaren informaziorik eta doinuarekin ederki moldatu dira. Euskal tradizioko doinuak lantzen ditugunean neri gustatzen zait jatorrizko bertsoekin lantzea, zaharrak izanda ere. Izan liteke ez ulertzea baina imaginarioan beti gelditzen zaie zerbait.

**“Bertsotan hizkuntzaz aldatzen baduzu jokutik ateratzen zara”**

**Bertsoa erakargarria da gaztetxoendako?**

Bai. 8-9 urtera arte asko motibatzen ditu kantatzeak berak eta 11-12 urterekin bertsoa tresna moduan erabiltzen hasten dira, bestela esan ezin ditzaketenez mezuak botatzeko: irakasleei protesta egiteko, maitasun kontuak adierazteko...

**Alde handia igartzen da hizkuntzaren ezagutza-mailaren arabera?**

Trebetasunean beharbada, baina interesean ez. Are gehiago, batzuetan errazagoa da bertsolaritzaz ezer ez dakien umearengan interesa piztea.

Soraluzen alde handia somatu dute euskara etxetik dakartenen eta ez dakartenen arteko hizkeran. Euskaraz erraztasunik ez duten umeak gaztelerara pasatzen dira, baina bertsotan ez, bertsotan hizkuntzaz aldatzen baduzu jokutik ateratzen zara.

**Eta generoari dagokionez, bada alderik?**

Galdu egin behar da gaizki ateratzeko beldurra, neska eta mutilen artean diferentzia hori igartzen da. Neskak idatzizkoan hobeto moldatzen dira baina heltzen da jendaurrean jarduteko uea eta mutilak aurreratzen dira. Horretan lan handia dago egiteko.

**Bat-batean ere jarduten duzue?**

Ez, ikastetxean, ikasleen kopurua dela eta, idatzizkoan jarduten dugu, batez ere. Bat-batean bertso-eskolan jarduten dugu gehiago. Orain dela urte batzuk hamar urterekin hasten ziren bat-bateko txapelketan. Ongi moldatzen zirenek jarraitzen zuten, baina beste guztiek laga egiten zuten, eta bertsolari ona ateratzeko taldea behar da inguruan. Orain hamalau urterekin hasten dira txapelketan bat-batean kantatzen. Bertso-eskolak izan behar du bertsoaz gozatzeko eta ez elkar neurtzeko.

**“Bertso-eskolak izan behar du bertsoaz gozatzeko eta ez elkar neurtzeko”**

**Ikasleren batek esan dizu bertsolari izan nahi duela?**

Adin horretan “bertsolari izan nahi dut” esaten dutenak ez dira asko, baina bai bertsolari izatera jolasteko gogoia dutenak.

Jatearen plazera, bertatik bertara

ogibitartekoak  
asteburuko kartak

eguneko menua  
razioak

Erreserbak: 943 75 20 16

**Kontulan**

aholkularitza  
ABOKATUAK

Errenta aitorpenak • Administrazio lanak • Trafikoko burokrazia  
Lan-arloko aholkularitza • Enpresen kontuitzio/disoluzioak • Kontabilitatea

Santa Ana 13 - I. ezk. 20590 Soraluze • Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

# Gaikako zabor-bilketaren datu eskasak: %37



Debarreneko Mankomunitateak eza-gutzera eman dituen datuen arabera, iaz hondakinen %37,19a jaso zen gaika herrian; 2014an jasotakoa baino %0,88 gehiago. Eskualdeko tasa ere, zertxobait altuagoa izan den arren, oso baxua da: %39,66koa.

5. edukiontzia 2013an ezarri zen herrian eta orain arte 1.393 herritarrek eman dute

izena "erabiltzaile" moduan. Mankomunitatearen arabera, erabiltzaile horietatik 220k ez zuten iaz 5. edukiontzia erabili. Udalak onartu du datuak "eskasak" direla eta adierazi du datorren urtera begira "zer neurri har daitezkeen" aztertuko duela.

**Errefuxarendako txipdun edukiontzia**  
Debarreneko EH Bilduk sistema hobetzeko Mankomunitatean adostutako hobekuntzak ezarri daitezela eskatu du. Unai Larreategi bozeramaileak adierazi du Mankomunitatean ordezkariak duten indar politiko guztiek begi onez ikusten dutela udazkenean Deban eta Mutrikun ezarriko den "errefuxarendako txipdun edukiontzia" baima osora zabaltzea, eta Mankomunitateko arduradunei eskatu die pausoak eman ditzatela 2017rako Debarreneko herri guztietan sistema berria ezar dadin.

## FotoNotizia



### Kukumixorekin Basondora

la ehun umek parte hartu zuten apirilaren 16an Kukumixo aisialdi-taldeak Basondora antolatu zuen irteeran. Animalien babesleku horretan umeek era guztietako animaliak ikusi zituzten: otsoak, sugeak, orkatzak, dordokak... min hartuta edo abandonatuta jasotakoak gehienak. Irteerak izan duen arrakasta ikusita, etorkizunean era honetako ekimen gehiago antolatzeko aukera aztertuko du Kukumixok.

## Motzean

### Obusa 36ko gerrakoa zen

Ertzantzako artezilariek baieztatu dute apirilaren 15ean Kainoi-Fabrika ondoan txatarra batzen ziharduen pertsona batek topatutako obusa 36ko gerran jaurtitakoa zela, eztanda egin barik gelditu zena. Ertzantzak jakinarazi duenez, obusak 40 kilo inguru zituen eta TNT leherkariz beteta zegoen. Lehertzeko arriskua zela-eta, agertu zen egunean bertan lurretako leherkari biltegira eraman zuten.



### Errenta aitortpena euskaraz

Aurten 500 baietz! Ilolepean kanpaina abiatu du Udalak, herritarrak errenta-aitortpena euskaraz egitera animatzeko. Gogorazi du aitortpena euskaraz egiteko aukera dagoela modalitate guztietan. 2013an 365 izan ziren aitortpena euskaraz egin zuten soraluzetarrak, aitortpena egin zuten guztien %13.

### Juanita Zegamak ehun urte

Juanita Aseginolazak ehun urte bete zituen apirilaren 10ean, eta ohikoa den moduan, alkatearen bisita eta lore-sorta jaso zituen. Bere etxean ospatu zuen urtebetetze berezia, senide eta lagunak ondoan zituela. Juanitari aitaren aldetik datorkio Zegama ezizena, herrira bizi izatera etorri zen aita jatorriz Zegamako zelako.





**Kalebarreneko  
kale kantoian**  
Tel. 943 75 17 89

**Eguneko menua, razioak,  
plater konbinatuak,  
hanburgesak, ogitartekoak,  
gosaria, pizzak...**

**Enkarguak  
egiten dira**

**Hortz klinika**  
Javier Alonso  
Mediku Estomatologoa  
K.Z. 20.000.434

**27 urteko esperientzia**  
Minik gabeko anestesia,  
odontologia orokorra, protesin finkoa  
eta mugikorra, odontopediatria,  
ortodontzia, inplanteak, estetika...

Errabal 1 - Tel.: 943 75 16 13



**Txori kantarien txapelketa maiatzaren 1ean**

Pedro Luque Memorialaren II. Edizioa egingo da domekan. Eguraldia lagun, Ezoziko futbol zelaian egingo da eta iazko edizioan bezala, Euskal Herriko hainbat lekutatik ekarritako guardantxilo eta guardantxilo mixtoak lehiatuko dira. Txapelketaren bultzatzaile eta antolatzaile nagusia Patxi Luque da, Eibarren bizi den soraluzetarra.

**Kainoi Fabrika ondoko putzuak eragozteko lanak astelehenera arte**

Euri-uren ondorioz, Baltegieta kalean, Kainoi Fabrika parean, sortzen diren putzuak eragozteko lanak egin dira aste honetan. Lanak amaituta, astelehenera berriz autoak aparkatzeko aukera izango dela jakinarazi du udaltzaingoak.



# Hezkuntza-sistemarekiko kezka guraso eta ikasleen artean

Azken asteotan ugaritu egin dira herrian LOMCE legeak dakartzan aldaketei aurre egiteko ekimenak. Istitutuko hainbat ikaslek elkarretaratzea egin zuten apirilaren 14an Plaza Barrixan eta Plaentxi Hlko hainbat gurasok ere elkarretaratzeak eta beste hainbat ekimen antolatu dituzte. Gurasoek salatu dutenez, "Jaurlaritzak martxan jarri duen Heziberri proiektuak LOMCE legeak ezarri nahi zituen neurrien %90 jasotzen du. Beraz praktikan gauza bera da". "Erlijioa indartu, euskarari tokia kendu eta errebaliden bitartez ikasleen artean sailkapenak egitea" dira, besteak beste, "gurasoak gehien kezkatzen dituen neurriak, "dagoeneko ezartzen hasita daudenak.

**3. mailako errebalidari planto**

Epe laburrean, 3.mailako ikasleek egin beharko luketen errebalidari planto egiteko sinadurak batzeari ekin diote eta etorkizunean guraso-elkarteekin eta eskola-kontseiluarekin batera jarrera bateratua adostu nahi lukete. Bitartean, astelehenero ikastetxearen aurrean eta eguenero Plaza Barrixan, elkarretaratzeak egingo dituzte.



Eguenean Plaza Barrixan egin zen elkarretaratzea.



DBHko ikasleek plazan egin zuten elkarretaratzea.



**Ignacio  
Zuloaga  
Institutua**  
**EIBAR**



**Aurrematrikula maiatzaren 2tik 12ra**

**Batxilergoak:** Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia



Jardiñeta 3 Eibar · Tel.:943208349 · Fax:943206048 · www.ignaciozuloaga.net · E-mail:012055aa@hezkuntza.net

## 50 URTE IKASTOLA SORTU ZELA

# “Plazentzian ikastolari esker hasi zen euskara aldapa gora”

ARGAZKIAK ETA TESTUA E. UNAMUNO

1966ko apirilean abiatu zen Soraluzean euskararen berreskurapenean izan den ekimenik garrantzitsuena: Soraluzeako Ametsa Ikastola. Ezosi Zangitu ikastolako lehenengo andereñoarengana jo dugu, ahanzturaren putzuan erortzeko arriskuan dagoen ekimenaren historia emankorra gogoratu nahian.

**Ikastola abiatu zen garaian zelako giroa zegoen herrian euskara eta euskal kulturarekiko?**

“Háblame en cristiano” zen legea. Kalean debekatuta zegoen euskaraz egitea. Sasoi hartan behie eta txakurrei bakarrik egiten zitzairen euskaraz, beste dena ezkutuan egiten zen. Zekitenek ere ez zuten egiten.

**Zela hasi zen ikastolaren mugimendua?**

Herrian guraso talde bat arduratuta zegoen euskara galzorian zelako eta bilerak egiten hasi ziren: Gorostidi, Etxabe, Iraeta, Iñurrieta, Alberdi... Bilerak klandestinoak izaten ziren. Kalebarreneko iratarraren lokalean batzen ginen, Mendata parean. Txokoan egoten zen pertsona bat bigilantzian eta beste bat Mendatan, inor konturatu ez zedin.

**“Gerra ostean, guraso askok laga egin zioten seme-alabei euskaraz egiteari”**

**Zu zela hasi zinen ikastolako andereño?**

Garai hartan 22 urte nituen eta katekesia ematen nien umeei. Gure aittitta hil zenean, Don Luis Maria Segurola – herriko apaiza orduan – etorri zen nigana eta zera esan zidan: “zuk euskeraz politto egitten dozu, umiekin ohittuta zare eta andereño hasi bihar dozu”. Hasieran, Elgoibarko ikastolan egon nintzen ikasten, nola egiten zuten ikusten. Gero, Donostiara bidali ninduten eta Zabaleta kalean andereñotarako ikasten zeudenekin egon nintzen; Elbira Zipitria, Karnele



Esna, Joxe Migel Barandiaran, Agirretxe frantziskotarra eta beste batzuekin ikasten genuen.

**Zela gogoratzen dituzu lehenengo egunak?**

Erregetxean hasi nintzen, berrogei bat umerekin. Gerra ostean, guraso askok laga egin zioten seme-alabei euskaraz egiteari eta etorri ziren ume askok ez zekiten euskaraz. Gogoratzen dut izenak euskaratu nizkiela: Jose Franciscori “Patxi”, Jose Vicenteri “Josu”...

**Zela moldatzen zineten horrenbeste umerekin?**

Kantuan egiten genuen, margotu eta eguraldi ona zenean, mendira joaten

ginen, txoriak ikusi edo loreak batzera, edo baserrietara. “Umiak pozik jua daittezel!” hori zen gurasoen kontsigna. Orduan, umeak halako pozik etortzen ziren, ezen, negarrik ere ez zuten egiten. Mahairik ere ez genuen eta lurrean jarrita egoten ginen kantuan, “gorriurdi-nekin” margotzen edo txotxekin hizkiak osatzen. Neguan lurrundutako kristalean idazten genuen. Guraso batzuek negar ere egiten zuten, umeak etxera joan eta “aita” idazten ikasi zuten zutenean. Guraso askok orduan ekin zioten umeekin berriz euskaraz egiteari. **Zein ikasmaterial erabiltzen zenuten?**



**FITXA BIOGRAFIKOA**

Ezoz Zangitu (Soraluze, 1943). 1966ko apirillean hasi zen ikastolako andereño moduan, 22 urterekin. Hogeita-mar urte egin zituen lan horretan eta 2006an erretiratu zen. Eusko Jaurlaritzak omendu zuen andereñoetako bat izan zen. Gaur egun, Durangon bizi da.



Ezoz ikastolako lehenengo taldearen argazkia eskuetan duela.

Garai hartan ez zegoen libururik, Xabier-txo, Martin Txilibitu eta gutxi gehiago. Plastilina ere "beste aldetik" ekartzen genuen. Baionara eta Donibane Loitzunera joaten ginen material bila, eta autoduna behar izaten genuen: Carmelo Mendizabal, Javier Unamuno edo Ramon Arias (lehenengo presidentea). Ramontxok ate asko zabaldu zizkion ikastolari. Ez zekien euskaraz eta ez zuen inolako susmorik pizten. Inspektorea zetorreanean abisua pasatzen zigun eta denok mendira joaten ginen.

**Gurasoek zelako parte hartzea zuten?** Denetarako gertu zeuden beti. Gauza asko zegoen egiteko eta denek lagun-

tzen zuten, gurasoek, ezagunek... Batek iturgintzan, besteek gela garbitzen... Orduan egunak 25 ordu izaten zituen. Prestatu behar izaten ziren rifak, tabernak eta beste gauza asko. Auzolan totala!

**Guraso gehienak euskaldunak izango ziren?**

Denetarikoa zeuden: euskaldunak, mixtoak eta erdaldunak ere bai. Ama erdaldun batek zera esan zidan behin: *"mi hermano vive en París y dice que si el crío vive en el País Vasco tiene que saber vasco. Y entonces yo le traigo aquí"*. Eta zu! Zela ikasi zuen mutiko harek euskaraz. Oraindik ere andereño esaten dit.

**Ikastolaren kontra zeudenek ere esango zuten zerbait...**

*"Ahí no vas a aprender nada; no vas a ser nada en la vida..."*. Batzuek ezer ez genuela egiten esaten zuten. Belarria jarrita egoten ziren ea zein kantu erakusten genituen eta abar. Horiek entzunda askok laga egin zuten ikastola, karrerarik ikasterik izango ez zutelakoan. Gero, jarraitu zuten gehienek karrerak egin zituzten.

**“Umiak pozik jua  
daittezela!” hori zen  
kontsigna”**

**Zerikusi handia zeukan pentsamendu politikoak?**

Ez, Garrantzitsuena zen euskaltzalea izatea, ez oraingo nahaste hau. Lehen denak zeuden etsai beraren aurka. Bata izango zen komunistagoa bestea baino, edo bata izango zen sozialistagoa bestea baino, baina euskaltzaleak zirenak, denak batera jarduten zuten. Zatiketak gero etorri ziren. Garai hartan euskararen alde egotea zen erlijio baten parekoa; berdinen gorri, berde edo urdin pentsatu. Denak euskararen alde, hizkuntzaren alde zeuden, hala zen.

**Gerora etorri ziren banaketak?**

Gero iada, ez zen *"denok euskararen alde"*. Gauzak nahasten hasi ziren alderdi politikoak sortu eta ikastolaren funtzionamenduan sartzen hasi zirenean. Publikazio garaiko azken bozketa oso gorrak izan zen.

**Eta ikastolaren historia oso ezkutuan gelditu da.**

Bai, zeharo. Eskola publikoarekin bat egin zen unean korapilo bat geratu zen, eta ordutik hona ikastolaren arrasto guztiak desagertu dira, den-denak: argazkiak,

dokumentuak... Ezer izan ez balitz bezala, baina hori ez da posible. Ez da ona inorendako. Herriko jendeak jakin behar du ikastola zer izan den herri honendako.

**Zuretako zer izan da ikastola?**

Pozgarria izan zen herriko txoko ziztrin baten hasi zena zelako erakundea bihurtu zen ikustea. Euskara galzorian zegoen herrian, behea jota, eta ikastolari esker hasi zen aldapa gora. Gerora, euskara Plazentzian heldu den mailara heldu dela ikusteak... horretxek egiten dit ilusio handiena.

**JAKINGARRI BATZUK****Ikastolaren egoitzak**

"Erregetxean lehenengo, gero, sakristian, Betanian, udaletxean, monjetan, Ezozibidean, Batzokian... "Erregetxean, lurrak apurtuta, zuloak egoten ziren orduan, eta azpian berdura plaza zegoen, arraindunak. Eta umeak zuloetatik diarka: "Ama!" "E, que está tu madre!". Pentsa zelako lokalak genituen."

**Mikrobusa**

"Gabolatsen geundela ikastolako autobusa izan genuen. Txurrukenen hasi eta bidean umeak batzen zituen. Autobusean egiten zituzten joan-etorriak."

**Izena eta logoak**

"Hasierako urteetan ikastolak Nuestra Señora de la Asunción izan zuen izena, elizaren babespean sortutako azelako, baina ikastola bultzatzeko sortu zen elkarteak Soraluzeko Ametsa zuen izena. Hasierako logoa haritzaren hostoa zen, zazpi puntaduna, euskara eta Euskal Herriko zazpi probintziak sinbolizatzen zituena. Gero etorri zen marrazkiloaren sinboloa eta harek beste esanahi bat zuen: poliki baina seguru joan behar zela."

**Umeen hizkuntza ohiturak**

"Sasoi batean debekatuta zegoen ikastolan erdaraz egitea, baina euskaraz ez zekiten lagunekin erdaraz egin behar izaten zuten umeek. Ondoren sortu zen beste kontu bat, neri gustatzen ez zitzaidana: ikastolako eta goiko eskolako ikasleen arteko borroka, euskaraz egiten zutenen eta erdaraz egiten zutenen artekoa. Aurretik ez zen horrelakorik, denek erdaraz egiten zuten-eta!"

## GURASO BERRITSU

## Seme-alaben bidelagun

Arrate  
Gisasola

Martxoan eta apirilean zehar Guraso Berritsu tailerlean parte hartu dute hamalau gurasok. Euskararen bidaian seme-alaben bidailagun izateko teknikak elkarbanatu dituzte bertan.

Gustura egin dugu "guraso berritsuen" tailerren ibilbidea. Guraso euskaltzaleen batzordean aipatu izan dugu gaia erdigunera ekarri behar dugula, herriko hiztunekin (elebidun zein elebakar) berbalizatu, hizkuntzaren gaiarekiko bizipeanak elkarbanatu... Baina ezin ukatu badirela guran aurreiritziak ere, esaterako, norberaren hizkuntzan oinarritutako identitatea sendotzeko beste identitate baten aurka agertzea, euskara vs gaztelera. Baina zorionez, tailerretan, euskaraz dakigun eta gutxiago dakitenen artean ez da versusik gertatu. Bakoitzaren lehen hizkuntza baztertu gabe, gure seme-alabek euskara ahalik eta kasu/leku gehienetan erabiltzeko bidea jorratu nahi dugulako eta posible dela sentitu dugulako.

Horretarako, denok elebidun edo eleantiz izango garen herria eraiki behar dugu. Euskaraz jakinda edo jakin gabe, gurasoon papera ezinbestekoa da bide




Tailerlean parte hartu duten gurasoak.

horretan. Zorionez, ikasi dugu egiten duguna baino askoz gehiago egin dezakegula: kontsumoa ahalik eta gehien euskaraz eskaini, euskara gehiago erabili edo ikasi, hizkuntzekiko balio positiboak adierazi... etorkizunean euskaraz

bizitzeko aukera izan dezaten, versusak gaindituz, elkarbizitzaren alde eginez. Guraso berritsuen tailerra ez da dinamika isolatua izan, aurrera begira ere Soraluzeko gurasoekin batera lanean jarraituko dugu; beraz, adi eta ez galdu aukera.

Naiara  
Beretxinaga

Gure seme-alabek euskaraz egiteko interesa duten gurasoak batu gara eta niri balio izan dit ikuspuntua zabaltzeko, eta hizkuntza menderatzen ez duten pertsona askok gogoia dutela ikusteko. Umeen eredu geu gara eta eurak guk egiten duguna imitatzen dute.

Eider  
Unamuno

Guk nahiko genuke gure seme-alabek euskara aukeratzea bizitzeko. Tailerlean ezagutu dut estres linguistikoaren kontzeptua: elebidunok etengabe aukeratu behar izaten dugu parekoarekin zein hizkuntzatan jardun, umeek ere bai. Egoera ulertu behar dugu eta gaiak berba egin.

Erica  
Pasenauk

Ni Kataluniatik dator, elebitasunean bizi den herrialde batetik. Kontu oso garrantzitsua da tokian tokiko hizkuntzak indartzea eta gure seme-alabek euskara behar bezala menderatzea. Euskaraz ez dakigun gurasook erremintak behar ditugu eta horietako bat da lotsa kentzea.

Jone  
Alberdi

Alaba euskaraz bizi da baina hasita nago sumatzen, hazi ahala, lagunartean-eta, erdaranzko joera pixka bat, batez ere, euskaraz ondo egiten ez duten lagunak tartean direnean. Pena ematen dit plazan umeak erdaraz entzuteak. Tailerrak lagundu dit gertatzen dena ulertzen eta modu positiboak lantzeko moduan ezagutzen.

Amaia  
Alamino

Etxean ez dugu euskaraz egiten. Nik ulertzen dut, baina kosta egiten zait berba egitea. Dena den, nahi dut seme-alabek ikus dezatela normala dela esaldi batzuk euskaraz esatea. Ni euskaltegian ari naiz ikasten eta desio diet ikas dezatela orain, txikiak diren bitartean, nagusitan gehiago kostatzen da-eta.

Silvia  
Maria

Gure etxean ez da euskaraz egiten, ez dakigulako. Nik lanean ikasi ditut berba batzuk eta ahalik eta gehien erabiltzen ditut, jolas moduan. Neretako sekulako garrantzia du nire alabak euskara menderatzeak eta, bide batez, neu ere hurreratzen naiz: internet, musika, irratia...

Motzean

**Albisua Bigarren B mailako onenen artean**

"Hablemos de futbol" kirol-webguneak Bigarren B mailako erdilari onena aukeratzeko izendatuen artean sartu du Aritz Albisua soraluzetarra, beste 9 jokalarirekin batera. Datozen egunotan jakingo da bozketaren emaitza. Aritzek Barakaldon jokatzen du gaur egun eta hiru aste barru Bigarren A mailara igotzeko lehiatuko dira.



**Aritz Perez azkarrena Leonen**

Aritz Perezek irabazi zuen joan zen asteburuan Laguna de Negriloko zirkuituan jokatu zen Gaztela eta Leongo quad lasterketa. Q2 mailako lehenengo sailkatua da eta urte amaieran Q1 mailara igotzea du helburu. Txapelketako hurrengo lasterketa Valladoliden jokatuko du.



**Sora "B" final-erdietan**

Soraluzeko "B" taldea Gipuzkoako kopako final-erdietarako sailkatu da, bi partiduren faltan ligaxkako lehen postuari eutsita. Finalerako txartela maiatzaren 21ean erabakiko da, partidu bakarrean, Ezozi futbol zelaietan. Ander de Luisen jokalariek lau aste dituzte kanporaketa prestatu eta ia bezela kopa herrira ekartzeko.

**Yosemite eskalatzea amets**



Irene Alvarez Albarracinen eskalatzen.

**Irene Alvarez (23 urte, eskalatzaila)**

**Noiz hasi zinen eskalatzen?**

2007. urtean Bergarako rokodromoan, bertako lagun batek bultzatuta.

**Zein eskalada mota egiten duzu?**

Kirol eskalada, sokarekin harri handietan eta Boulder-a, leku itxietan blokeetan.

**Zer da eskaladaren alderik onena?**

Lagun artean sortzen den giroa.

**Noiz hasi zinen txapelketetan lehiatzen?**

2011. urtean Gasteizko Boulder Liga Txapelketan, 4 aldiz izan naiz bertan. Euskadiko txapelketan hiru aldiz parte hartu dut eta 2011. urtean Espainiako txapelketan.

**Euskal Herrian badago afizioa?**

Bai, 50 eskalatzaila inguru batzen gara txapelketetan eta horietatik kanpo askoz gehiago.

**Nola amaitu duzu denboraldia?**

Boulder Liga txapelketan hirugarren postuan eta entrenatzen jarraitzeko motibatuta.

**Hurrengo erronka?**

Espainiako txapelketan lan ona egitea.

**Eskalatzeko leku kuttunena?**

Albarracineko haitza, Teruelen.

**Eskalatzaila gustokoena?**

Josune Bereziartua, marka guztiak hautsi ditu mundu-mailan emakumezkoen artean.

**Eskalatzera nora joango zinateke?**


Yosemite, Kaliforniara.

**Zer da EUTSIZAK?**

Ion Arrieta eskalatzaila eta biok sortu genuen promoziorako marka da.

**Kirol eguna maiatzaren 21ean**

Kirol-egunaren bigarren edizioa egingo da maiatzaren 21ean. 11:00etatik 14:00etara bitartean nahi duenak ibaian piraguarekin ibiltzeko aukera izango du eta, ordu berean, gaztetxoek tirolinan eta rokodromoan jarduteko aukera izango dute Plaza Zaharrean. Zubi nagusian, berriz, 11:30etatik 13:00etara spinninga probatu ahal izango da. Arratsaldean, berriz, hiru kirol-erakustaldi egingo dira Zubi Nagusian: boxeoa 18:30ean, herri kirolak 19:00etan eta dantza erakustaldia 19:30ean.



**EDURTZA**  
taberna

Ogitartekoak, razioak, hanburgesak, pintxoak eta pizzak

Patata tortilak egiten dira enkarguz

Santa Ana 18  
Tel. 943 75 13 83



**MENDIZABAL**  
okindegia

Ogia · Prentsa Gosariak

Astelehenetik ostiralera:  
08:00 - 13:15 eta 17:00 - 20:00  
Larunbatak eta igandeak:  
08:00 - 13:15

Kalebarren 10 · Tel.: 943 75 13 99

# Puntako bertso saioa Euskal Jaietan



Pil-pilean Euskara Elkartearen XX. urteurrena dela-eta, ekainaren 3an, Euskal Jaian egitarauaren barruan, Pil-pileanek bertso-saioa antolatu du antzokian, Udaren laguntzarekin. Puntako lau ber-

tsolari etorriko dira: Amets Arzallus, Jon Maia, Oihana Iguaran eta Beñat Gaztelumendi. Iosu Goikoetxeak jardungo du gai-jartzaile lanetan eta saioko zenbait une musikatuak izango dira Domentx Uzinen eskutik. Saioa ekainaren 3an egingo da, barixaku gauean, 22:15ean hasita, antzokian. Sarrerak salgai jarriko ditugu maiatzaren 16tik aurrera, eta Iratxo Goxodendan zein Pil-pileanen bulegoan egongo dira eskuragarri. Prezioa 6 €koa izango da aurrez erosten dituztenedako edo Pil-pileaneko bazkideendako, eta 8 €koa egunean bertan erosten duten gainerako herritarrendako.

**Miren Artetxe bertsolariaren hitzaldia**  
Miren Artetxek Iparraldeko bertso-eskolen inguruan egindako ikerketaren berri emango du: "Bertsolaritzaren transmisioaren eragina Iparraldeko gazteen hizkuntza-erabileran". Pil-pileanek hitzaldia baliatu nahi du bertsozaleen artean berba egiteko, herriko bertso-eskolaren funtzioaz eta herrian bertsozaleetasuna antolatzeko izan daitezkeen moduez.

## Motzean

### Herriko artisten jaia

Ezozibideko lokaletan entsaiatzen duten hainbat gaztek deialdia egin nahi diete herriko artistei ekainaren 18an guztien artean jai bat antolatzeko. "Disziplinak guztiak lekua izango duten jaia antolatu nahi dugu: musika, dantza, antzerkia, bertsoa... bakoitzak egiten dakiena. Bere garaian RK Zulorekin egin zenaren antzekoa egin nahi dugu, herriko artisten jaia". Izena eman nahi duenak 649228040 (Mikel) edo 664099430 (Ina) telefonoetara deitu dezake.



### Arte erakusketa feminista

Maiatzaren 6an inauguratuko da Korner Moreak antolatutako arte erakusketa feminista. Maiatzaren 2tik 14ra bitartean izango da ikusgai.

## TXURRUKA JATETXEA

- Sukalde tradizionala
- Eguneko menua
- Asteburuetako menu berezia
- Karta

www.txurruka.com  
Tel.: 943 75 15 81

## MABEL ILEAPAINDEGIA

Ilearentzako keratina tratamendua · Depilazioa  
Ile-sustrairik gabeko permanentea · Makilajea  
Manikura erdiiraunkorra  
Solariuma

Errabal 1  
Tel.: 943 75 14 89

## IZAGUIRRE Igeltseritza

Eraikin berriak · Kalitatezko emaitza  
Erreformak · Era guztietako igeltseritza

50 urteko esperientzia · 610 638 913 · 649 867 289

## Wendata

Enkarguak egiten dira  
Eramateko prestatzen da  
Menu bereziak enkarguz

Berezitasunak:  
Etxean egindako pizzapatak eta patata frijituak

Tel.: 943 25 74 52 / 680 75 40 60

## BOLIA

TABERNA  
Pintxoak  
Ardoak  
Konbinatuak  
Gazte-giroko festa

Tel.: 943 02 95 02

## Elizpe Hertz klinika

Gure zerbitzuak:  
- Ortodontzia ikustezina  
- Inplanteak

DOHAINEKO BERRIKUSKETAK  
FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA  
KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hertz programa)

Tel. 943 75 25 67  
Elizburu 3 behe, Soraluze

## Zorion agurrak



**Eki Azkorbeitia**  
Apirilaren 11n, urtebete.  
Urtebete zoragarria izan da,  
maite zaitugu pitxin!!  
Zorionak etxeko danon partez.




**Joanes Jainaga**  
Maiatzaren 11n, 2 urte.  
Zorionak Joanes! Ondo pasa  
zure 2. urtebetetzean. Patxo  
haundi bat etxekuen partez!!



**Sugoi Zubizarreta**  
Apirilak 11n, 3 urte.  
Zorionak, zure urtebetetzean  
eta zoriona bizitzan. Etxeko  
guztien partetik, pottoko.




**Juan Fernandez**  
Apirilak 13an, 61 urte.  
Zorionak eta besarkada  
bat etxekuen partez!



**Amets Uzin**  
Apirilak 3, 3 urte.  
Zorionak eta muxu  
haundi bat etxekuen  
partez.



**Bixente eta Esther**  
Apirilak 25ean 91 urte eta maiatzaren 14an 84  
urte. Zorionak Aitxitxa eta Amama! Ondo ondo  
ospatu urtebetetzea eta muxu haundi bat familia  
guztien partez, ta bereziki Joanesen partez!



**Anahi Maquinay**  
Apirila 20xan, 29 urte.  
Etxeko guztien partez.




**Pedro Lete**  
Maiatzaren 16an, 63 urte.  
Etxeko guztien partez.



**Ghazi Ur Rahim**  
6 urte apirilaren 28an  
Iribarren poztasuna eta  
maitasuna izan ditzazuela  
egunero. Etxekoen partez.



**Irati Oregi Mayo**  
Apirilaren 10ean, 4 urteko.  
Zorionak etxekuen partez  
txiki... jarraitu bihurritxua  
izaten. Maite zaitugu!  
Etxekoen eta Uxuen partez.



**Begoña Txurruka**  
Apirilaren 21ean urteak  
betetzearren. Segi horrela  
urtiak dotore betetzen. Muxu  
erraldoi bat etxekuen partez.



**Atxito eta Arantxa**  
Atxito Aizpuru eta Arantxa Txurruka 1966ko  
apirilaren 30ean ezkondu ziren. 50 urte bete  
dituzue elkarrekin. Zorionak eta besarkada bana  
seme-alaba, suin-errain eta loiben partetik.



**Iosune eta Irati**  
Zorionak etxeko bi  
printzeserik!! Segi beti  
bezain alai! Ekain eta  
etxeko guztien partez.



**Jone Piñeiro Gantxegi**  
Apirilaren 18an, 9 urte.  
ZORIONAK pitxin!!!  
Muxu haundi bat.  
Familia guztiaren partez.



**Lore Leturiondo Garcia**  
Apirilaren 11n, 11 urte.  
Zorionak eta muxu  
handi handi bat!  
Etxekoen partez.



**Naroa Ros Gil**  
Maiatzak 18an, 10 urte.  
Zorionak guapisima!!  
Asko maite zaitugu.  
Etxekoen eta Uxuen partez.



**Jose Ramon eta Nahia**  
Apirilaren 4an eta 11an,  
64 eta 2 urte. Zorionak eta  
patxo haundi bana! Etxeko  
guztien partez.



**Iosu eta Nora Leturiondo**  
Apirilaren 30ean, 53 eta 20 urte.  
Segi orain arte bezain jator.  
Muxu pila Oihana, Ekaitz eta lhintzaren partez.



**Oier Vaquero Aguirre**  
Apirilak 15ean, 4 urte.  
Zorionak txapeldun!  
Muxu pila etxekuen partez.



**Markel Cerrejon eta Urko Unamuno**  
Apirilaren 26n, 4 urte. Zorionak bikote!!  
Muxu handi bana etxekuen partez.



**Ainhoa Galarraga eta Amaia Heras**  
Apirilak 25 eta maiatzak 5ean  
Zorionak amores!!! Muxus



**Ane Alberdi eta Ioritz Reglero**  
Maiatzaren 18an eta 17an, 7 urte  
Zorionak!! Etxekoen partez.

## Jaioberriak



**Ibai Larrañaga Lizarralde**  
Martxoaren 31n jaio zen



**Laia Alustiza Rodriguez**  
Apirilaren 20an jaio zen

## Jaiotakoak eta hildakoak



**Laia Alustiza Rodriguez  
Noemi Cortes Valdes  
Ibai Larrañaga Lizarralde**



**Maria Luisa Osoro Elkoroiribe  
Raimundo Perez Alvarez  
Gustavo Laskurain Zangitu**



Iturria: Lazaro Trebiño.

## Ikastolako lehenengo taldea

1 1967ko apirilean Soraluzeko Nuestra Señora de la Asuncion ikastolan hasi ziren ikasleak (39) ageri dira argazki honetan. Ikastolaren lehenengo egoitza Erregetxeko eraikin zaharra izan zen eta bertako gela batean hasi ziren euskarazko eskolak ematen.

Atzetik hasita, ezkerretik eskumara: Ezosi Zangitu, Imanol Mendizabal, Xabier Leturiondo, Aitor Iñurrieta, Eli Orbea, Aintzane Iñurrieta, Ana Mendikute, Alexander Amor, Josu Leturiondo eta Maria Jesus Iñurrieta. Xabier Sarasua, Cecilia Astiazaran, Lazaro Trebiño, Ramon Elizgarai, Bakarne Lizarralde, Jabier Muguruza, Antxon Uriarte, Maite Alberdi. Galarraga, Juan Luis Iñarra, Luis Mari Martin, Eli Guridi, Ana Gallastegi, Patxi Igartua, Koro Zenitagoia, Ane Etxabe, Luisja Oregi. Rosa Uribelarrea, Idoia Aldazabal, Nerea Cerrejon, Alberto Zarobe, Arantxi Aranda, Felipe Oregi eta Patricia Iriondo.

Argazkian falta dira: Nerea Unamuno, Oskar Otxoa, Jose Ignacio Garcia, Iñaki Amuategi, Beatriz Arizaga, Jose Ignacio Nuñez.



**ESKELA DOAN  
PIL-PILEAN HERRI ALDIZKARIAN**

## OROIORE Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

- Zerbitzu etengabea 24 ordutan
- Ez onartu besterik gabe zure asegu-konpainiak esaten dizun hileta zerbitzua, jakin ezazu nahi duzun hileta zerbitzua aukera dezakezula beti.
- Guztiarekin arduratzen gara: eskelak, lorak, errausketak, hilobiratzeak, beilatokia, tramitazioak etab.

617442155 zenbakira deitu eta berehala jarriko naiz zurekin harremanetan

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin eta nire helburua familiari ahalik eta traturik beroena hurbilekoena ematea izango da.*

BERGARAN, Amillaga 27an

maribi • 617442155 • maribi@oroilore.com

**KLB6**

Kalebarren 6  
943 57 74 26

Mutilen eta nesken  
moda gaztea



KLB6  
edo  
Sara Jantzigenda



Pepe Jeans  
BLEND

TRÉZ  
MUNICH

MAISON SCOTCH  
LA FEMME SELON MARIE  
VERO MODA

new balance

## AURREZTU ENERGIA



Berotu etxea  
BIOMASA ETA  
EGURREZKO  
galdarekin

fontaneria  
**San Andres**  
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com



**Elgoibar-Arreiturre BHI**

**2016-2017 Batxilergorako aurrematrikulazioa:**

**Maiatzaren 2tik 12ra**

## **BATXILERGOA (BH)**

**Giza eta  
gizarte  
zientziak**

**Zientziak**

**Artea**

- Gizarte zientziak  
- Humanitateak

- Osasun Zientziak  
- Zientziak eta teknika

- Musikala

**INFORMAZIO BILERA GURASOENTZAT:**  
**MAIATZAREN 3AN, 18:00ETAN,**  
**INSTITUTUKO ARETOAN (MEKA ERAIKINA)**

943 748 397  
013431@hezkuntza.net  
www.elgoibarbhi.eus





# DES KON TUAK

Soraluzeko komertzioek deskontuak eta eskaintza bereziak egiten dituzte hilero. Eskaintza baliagarria **apirilaren 29tik maiatzaren 13ra** arte.

## BOLINTXO OKINDEGIA Ogibitartekoa eta freskagarria



**2€** Lehen 2,5€ Deskontua %20

Izena: \_\_\_\_\_

Tel.: \_\_\_\_\_

## MGS ASEGURUAK Etxebizitza-asegurua eta bizi-asegurua



Deskontua **%20**

Izena: \_\_\_\_\_

Tel.: \_\_\_\_\_

## MENDATA TABERNA Pintxoak



**1€**

Izena: \_\_\_\_\_

Tel.: \_\_\_\_\_

## JAVIER ALBERDI HARATEGIA Biribila (txahala) / Saiheskia (txahala)



Biribila 10€ Lehen 11€ Deskontua %9  
Saiheskia 5€ 6,5€ %23

Izena: \_\_\_\_\_

Tel.: \_\_\_\_\_

## zozketa

60 euroko bono bat zozketatuko da hilero. Parte hartzeko, eskaintzaren bat kontsumitu behar da eta norbere datuekin betetako fitxa entregatu.

**Azken zozketaren irabazlea: Felipe Martin**  
70 partehartzaile

NIK,  
HERRIAN



YO, EN EL  
PUEBLO

PERTSONA  
HELBURIA

COMPROMISO CON  
MÁS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

ENHARRAKEN-GARAPEN  
ETA LERROKORREAN DIRA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD